



EGIren manifestua - Martxoak 8: Emakumearen Nazioarteko Eguna

Gaur, martxoak 8, egutegian data bat ez ezik, berdintasunaren aldeko borrokak bizirik dirauela gogorarazteko eguna dela sinetsita gaude. Martxoaren 8a dagoen bitartean, borrokan jarraitzeko arrazoiak egongo dira. EGIko gazteak garen aldetik, Euskadi justu, berdintasunezko eta aske baten aldeko konpromisoa hartzen dugu, eta ahotsa altxatzen dugu parekidetasuna errealitate izango den etorkizuna nahi dugula esateko.

Egun honek gogorarazten digu, aurrera egin dugun arren, bideak oztopoz beteta jarraitzen duela. Emakumeek indarkeria, diskriminazio eta desberdintasunei aurre egiten jarraitzen dute. Soldata-arrakala, lan-prekarietatea, zainketen gainkarga, jazarpena eta indarkeria matxista dira gure gizartean dirauten itzaletako batzuk. Horregatik, gaur ez dugu ospatzen: aldarrikatu, exijitu eta ekin egiten dugu.

EGIren ustez, borroka feminista borroka kolektiboa eta zeharkakoa da. Ez da emakumeen kontua bakarrik, gizarte osoarena baizik. Horregatik, gaur, inoiz baino gehiago, konpromiso hauek hartzen ditugu:

1. Mugatzen gaituzten rolak haustea: Inork bere askatasuna mugatzen duten genero espektatibak bete behar ez dituen gizarte bat nahi dugu. Emakumeak ez ziren jaio zaintzeko, ezta gizonak agintzeko ere. Pertsona bakoitza izan daitekeen mundu bat nahi dugu, etiketarik eta aurreiritzirik gabea.

2. Indarkeriarik gabeko guneak eraikitzea: Kaleak, plazak, tabernak, lantokiak eta sareak emakumeentzako leku seguruak izan behar dira. Ez dugu begirada deserosorik, iruzkin iraingarririk edo erasorik nahi. Emakumeak beldurrik gabe bizi daitezkeen Euskadi bat nahi dugu.



3. Berdintasunean heztea: Hezkuntza da gizartea eraldatzeko tresnarik boteretsuena. Errespetatzen, enpatizatzen eta pribilegioak zalantzan jartzen irakatsiko duen hezkuntza nahi dugu. Berdintasunean eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako harremanak eraikitzekeo prestatuko gaituen hezkuntza.

4. Benetako justizia eskatzea: Emakumeek ezin dute jarraitu berriro biktimizatzen eta zalantzan jartzen dituen sistema bati aurre egiten. Indarkeria matxista erabiltzen dutenen aurka irmo jokatuiko duen, entzungo duen eta babestuko duen justizia bat behar dugu.

Baina ez gaitezen engainatu: borroka ez da gaur amaitzen. Martxoaren 8a bozgorailu bat da, baina eraldaketak eguneroko konstantzia eta konpromisoa eskatzen du. Gure etxeetatik, gure kuadrilletatik eta gure espazioetatik, aldaketa-eragile izateko erantzukizuna dugu. Keinu, hitz eta ekintza bakoitzak balio du. Ezin dugu onartu matxismoak nahi bezala jarraitzea.

Gaur ozen eta argi diogu: **martxoaren 8a dagoen bitartean, borroka izango dugu aurretik.** Emakumeak erailak, diskriminatuak edo isilduak izaten jarraitzen duten bitartean, ez gara isilduko. Berdintasuna ideala den bitartean, errealitate bihurtzeko lanean jarraituko dugu.

EGI, Euskadi aske, justu eta feminista baten alde.

GORA BORROKA FEMINISTA!



Manifiesto de EGI - 8 de Marzo: Día Internacional de la Mujer

Hoy, 8 de marzo, nos levantamos con la firme convicción de que este día no es solo una fecha en el calendario, sino un recordatorio de que la lucha por la igualdad sigue viva. Mientras exista un 8 de marzo, habrá razones para seguir luchando. Como jóvenes de EGI, nos comprometemos con una Euskadi justa, libre y feminista, alzando la voz para afirmar que queremos un futuro donde la igualdad sea una realidad.

Este día nos recuerda que, aunque hemos avanzado, el camino sigue lleno de obstáculos. Las mujeres siguen enfrentándose a violencias, discriminaciones y desigualdades que se niegan a desaparecer. La brecha salarial, la precariedad laboral, la sobrecarga de los cuidados, el acoso y la violencia machista son solo algunas de las sombras que persisten en nuestra sociedad. Por eso, hoy no celebramos: reivindicamos, exigimos y actuamos.

Desde EGI, creemos que la lucha feminista es una lucha colectiva y transversal. No es solo cosa de mujeres, sino de toda la sociedad. Por eso, hoy más que nunca, nos comprometemos a:

1. Romper con los roles que nos encasillen: Queremos una sociedad donde nadie tenga que cumplir con expectativas de género que limiten su libertad. Las mujeres no nacieron para cuidar, ni los hombres para mandar. Queremos un mundo donde cada persona pueda ser quien quiera ser, sin etiquetas ni prejuicios.

2. Construir espacios libres de violencia: Las calles, las plazas, los bares, los trabajos y las redes deben ser lugares seguros para las mujeres. No queremos más miradas incómodas, comentarios ofensivos o agresiones. Queremos una Euskadi donde las mujeres puedan vivir sin miedo.



3. Educar en igualdad: La educación es la herramienta más poderosa para transformar la sociedad. Queremos una educación que enseñe a respetar, a empatizar y a cuestionar los privilegios. Una educación que nos prepare para construir relaciones basadas en la igualdad y el respeto mutuo.

4. Exigir justicia real: Las mujeres no pueden seguir enfrentándose a un sistema que las revictimiza y las cuestiona. Necesitamos una justicia que proteja, que escuche y que actúe con firmeza contra quienes ejercen violencia machista.

Pero no nos engañemos: la lucha no termina hoy. El 8 de marzo es un altavoz, pero la transformación requiere constancia y compromiso diario. Desde nuestras casas, nuestras kuadrillas y nuestros espacios, tenemos la responsabilidad de ser agentes de cambio. Cada gesto, cada palabra y cada acción cuenta. No podemos permitir que el machismo siga campando a sus anchas.

Hoy decimos alto y claro: **mientras exista un 8 de marzo, tendremos lucha por delante.** Mientras las mujeres sigan siendo asesinadas, discriminadas o silenciadas, no nos callaremos. Mientras la igualdad sea un ideal, seguiremos trabajando para hacerla realidad.

EGI, por una Euskadi libre, justa y feminista.

GORA BORROKA FEMINISTA!